

I 2021eko ekaina I

Azken hilabete hauetan, Leartibai Garapen Agentziak **3R programaren bigarren deialdia** aurrera eraman du, eskualdean Covid-19ak sortutako kalteak murriztea helburua duena. Horrela, pandemiaren ondorioz lana galdu duten pertsonei lan-merkatura itzultzen laguntzeko tresnak eta teknikak eskaini dizkiegu.

23 pertsonak parte hartu dute bigarren deialdi honetan, eta 2020ko martxoaren 14tik aurrera hainbat jarduera eta tailer egiteko aukera izan dute. Horien bitartez, lan-merkatura bueltatzeko aukerak handitzeaz gain, langabezian geratzeak sortutako ondorioak kudeatzen ikasteko teknikak ere jaso dituzte.

Parte-hartzaileen egoera askotarikoa izan da. Esaterako, 23 partaideetatik 11 emakumezkoak eta 12 gizonetzkoak izan dira; hau da, % 47,8 eta % 52,2.

Taldea	Ehunekoa	Partaide kop.	Emakumeak	Gizonak
25 urtetik behera	% 22	5	% 60	% 40
25-44 urte bitartean	% 61	14	% 43	% 57
45 urtetik gora	% 17	4	% 50	% 50
Emakumeak	% 48	11		
Oinarrizko hezkuntza	% 9	2	% 50	% 50
Erdi-mailako hezkuntza	% 35	8	% 38	% 63
Goi-mailako hezkuntza	% 57	13	% 40	% 60
Baztertze arriskuan	% 9	2	% 50	% 50

Programa burutu ostean, **8 partaidek lana lortu dute** eskualdean bertan eta beste guztiek lana bilatzen dihardute guk emandako tresna eta informazioaz baliatuz.

Hala ere, lan-merkatura Covid-19aren ondorioak pairatzen jarraitzen du. Horregatik, aurretik

parte hartzeko aukerarik izan ez dutenek eta izena ematea nahi dutenek, gurekin harremanetan jarri daitezke, laster **3R programaren hirugarren deialdia martxan jarriko baitugu**. Hirugarren deialdi hori 2022ko martxoaren 31n bukatuko da; beraz, gure sare sozialei eta albisteei adi egoteko gomendioa luzatzen dugu!

Leartibai Garapen Agentziarekin harremanetan jartzeko enplegua@leartibai.com helbidera idatzi edo gure bulegoetako batera deitu dezakezue:

- Lekeitio: Sabino Arana etorbidea 14 – 94 603 41 11.
- Markina-Xemein: Xemein etorbidea 1A – 1. solairua - 94 616 90 88.
- Ondarroa: Kantoipe kalea z/g – 94 683 34 95.

[Kartela ikusi](#)



Bizkaiko Foru Aldur
finantzaketa jaso d